



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 15a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer komeni den: Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen baldintza duinak ziurta ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea beste leku batera eraman dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Amazabal Institutua izenda dezan Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe, Biurdana Institutuaren ordezkari. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren hezkuntza zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Bertsolaritza Hezkuntzan” izeneko programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2014ko apirilaren 22tik 24ra bitarteko egunetarako lanaldia (7. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer komeni den: Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen baldintza duinak ziurta ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2014ko apirilaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan jakiteko ea zer komeni den: Beriaingo Ikastetxe Publikoaren egungo eraikina mantentzea ala berri bat egitea, eta instalazioen baldintza duinak ziurta ditzan." Erabakia heldu da Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu zuten mozio batetik, zeina 2014ko martxoaren 28ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman baitzen argitara.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan 6 hilabeteko epean, jakiteko ea Beriaingo herrian egungo eraikina mantentzea komeni den ala ikastetxe publiko berri bat eraikitzea, eta, edozein kasutan, egitea erabakitzen den jarduketan egutegia ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du instalazioen egoera duin bat berma dezan, zein ere diren egiten den azterlanaren ondorioak, Beriaingo ikastetxe publikoaren egungo gabezia garrantzitsuei konponbide bat emanaz."

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea beste leku batera eraman dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2014ko apirilaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea beste leku batera eraman dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gunea beste leku batera eraman dezan, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak 2014-2015 ikasturtean bere hezkuntza-eskaintza handitu ahal izateko erabili ahal izan ditzan lokal horiek."

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Amazabal Institutua izenda dezan Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe, Biurdana Institutuaren ordean.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2014ko apirilaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Amazabal Institutua izenda dezan Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe, Biurdana Institutuaren ordean."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Amazabal Institutua

izenda dezan Lekunberriko Ibarberri Ikastetxeko ikasleentzako erreferentziazko ikastetxe, Biurdana Institutuaren ordean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatu ditzan Nafarroako lurralde guztietan, ikasle guztiei emanez derrigorrezkoaren ondoko ikasketak egiteko aukera, beren bizilekua zein ere den, dagoen eskola-garraioa antolatuz eta aprobetxatuz edo, kasua bada, garraiorako eta egoitzarako laguntzak edo dirulaguntzak ezarriz."

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren hezkuntza zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren hezkuntza zerbitzuei dagokienez Nafarroako Gobernuak duen asmoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du (8-14/PES-00049) jakite aldera Nafarroako Gobernuak zer asmo duen 27/2013 Legearen arabera udal eskumenetik kanpo gelditzen diren eta gaur egun toki esparruan ematen ari diren hezkuntza zerbitzuei dagokienez, eta zer ekimen egitea daukan pentsatuta horri dagokionez. Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraungarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen arabera udal eskumenetik kanpo geldi litezkeen hezkuntza zerbitzuei buruz Nafarroako Gobernuak dituen asmoen eta burutu nahi dituen ekimenen gaineko galderari erantzun aurretik zenbait kontu argitu behar dira:

– Abenduaren 27ko 27/2013 Legeak onetsitako erreformaren ondoren Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 25. artikuluko n) letrak udal eskumenetik kanpo utziko lituzkeen hezkuntza zerbitzuen adibide gisa 0tik 3 urtera bitarteko haur eskolak eta musika eskolak aipatu

dira, baina erreformaren aurretik ere 25. artikuluko horretan ez zen bi zerbitzu horietatik bat ere ageri udalek, betiere Estatuko eta autonomia erkidegoetako legeriaren baldintzetan, beren eskumenekoak zituzten gaien artean.

– Galderan ez da aipatu bi hezkuntza zerbitzu horietarako udal eskumena aitortzen zuen Estatuko legeria (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa –LOE–), egin berri den erreformaren ondoren ere eskumen hori aitortzen jarraitzen duena. Ia aldi berean egin dira erreforma hori eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearena (TAOL).

– Nahiz eta orain TAOLek, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bidezko erreformaren ondoren, berariaz aipatzen dituen autonomia erkidegoek (edo Nafarroako Foru Komunitateak) toki entitateei delegatu ahal dizkieten eskumenak, lehendik bazegoen jasorik delegatzeko aukera hori bai TAOLen, lehengo testuan, baita Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ere. Dagoeneko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere titulartasuneko 4 haurtzaindegi delegatu ditu eta haur eskola bilakatu dira.

– Zerbitzu horiei dagokienez Nafarroako Gobernuak dituen asmoak eta egin nahi dituen ekimenak zehaztu ahal izateko, aldeztu aurretik beharrezkoa da zerbitzuen titular diren toki entitateen asmoak eta ekimenak ezagutzea, eta, behin ezagututa, aztertu egin behar da eskumen batzuk edo besteak erabiltzeak eta zerbitzu batzuk edo besteak emateak zer nolako eragina izanen duen haien finantza-baliabideetan eta kasuan kasuko zerbitzu edo jardueraren egonkortasunean, finantza-iraunkortasunean eta eragimenean, halaxe agintzen baitu, erreformaren ondoren, TAOLek, eta halaxe ondorioztatzen baita Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikotik beretik;

horren printzipioak aplikatzeko egin da toki entitateen arloko oinarrizko araudiaren egokitzapena, abenduaren 27ko 27/2013 Legearen zioen azalpenean aldarrikatzen denez.

– Aurreko guztia finkatuta, eta kontuan izanik, parlamentari jaunak ere bere galdera egiterakoan gogoratu duen bezala, abenduaren 27ko 27/2013 Legeak berariaz jaso duela, Nafarroako Gobernuak hala eskaturik, Bigarren Xedapen Gehigarri bat, zeinean, Estatuko legeriak ezar dezakeena alde batera utzita, Nafarroako Foru Komunitateari bide ematen baitzaio, TAOLen 25. artikuluko 3., 4. eta 5. idatz-zatietan agindutakoa errespetatuz, eskumenak bereak balira bezala esleitzeko bai bere lurraldeko udalei bai Nafarroako gainerako toki entitateei, Nafarroako Gobernuaren ekimena mahai gainean jarri da jada TAOLen erreforma onetsi aurretik, izan ere Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa Berrantolatzeke Foru Lege proiektua aurkeztu baitzitzaion Parlamentuari. Proiektu horretan uztartu nahi izan dira batetik toki autonomiaren begirunerik handiena eta bestetik toki zerbitzuen ezarpenean bete behar diren

printzipioak, ez bakarrik deszentralizazioarena, baita, era berean, eragimenarena, egonkortasunarena eta finantza iraunkortasunarena, eta arrazionalizazioarena ere bai, bikoiztasunak ekidite aldera.

Horregatik apustu egiten jarraitzen da konponbide egokiak bilatzearen alde, toki entitateek aukera izan dezaten nahitaezkoak ez izan arren bizilagunek eskatzen dizkieten zerbitzuak ematen segitzeko, eta herritarrengandik hurbil egoten jarrai dezaten. Erabil litekeen formula da udalez gaindiko entitateek kudeaketa egitea, horrek alde batetik benetako kostuak murrizten eta bestetik zerbitzu merke, bideragarri eta iraunkorrak lortzen laguntzen baitu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Carlos Longás García jaunak egindako galderaren erantzuna, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak informazioa eskatu du Elizbarrutiko artxiboari buruz (PES-00043). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Ez dago artxiboen arloko hitzarmenik Iruñeko Artzapezpikutzarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko martxoan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, “Bertsolaritza Hezkuntzan” izeneko programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, “Bertsolaritza Hezkuntzan” izeneko programari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-14/PES-00053), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

– “Bertsolaritza Hezkuntzan” izeneko programa gauzatzeko, laguntza-zerbitzua kontratatzen da prozedura negoziatuaren bidez eta Europar publikitatez egin gabe, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.1.b) artikulua xedatutakoarekin bat.

– Urriaren 1eko 599/2012 Ebazpenean baime-na eman zen 2012-2013 ikasturteko programa kontratatzeko, 2012ko irailaren 1etik 2013ko ekai-

naren 30era bitarteko aldirako, eta ebazpen berean kontratua Iruñeko “Nafarroako Bertsozale Elkartea”ri adjudikatu zitzaion 32.800 eurotan. Kontratu horretan 15 ikastorduko egitaraua ezarri zen talde bakoitzeko, eta guztira 75 talde egin ziren.

– Programaren kontratua amaitu zenean, 2013ko ekainaren 30ean, ez zen beste kontratazio bat hasi. Beraz, ez zaio diru kopururik zor elkarte horri.

– 2014ko partidari eta aurrekontuari buruzko galdera dela eta, partida 421001-42410-2269-322900 zenbakikoa da, “Euskara erabiltzeko programak” izenekoa, eta hasiera batean 5.000 euroko diru-esleipena dauka.

– “Bertsolaritza Hezkuntzan” izeneko programaren 2014ko kontratazioa baimentzeko zain dago, ekitaldi horretarako aurrekontuko baliabideen arabera.

– Baimena eman eta programa 2012-2013 ikasturterako adjudikatu zuen azken ebazpenaren agiriak eta alderdiek aldi horretarako sinatu zuten kontratuaren kopia erantsi dira.

Iruñean, 2014ko martxoaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2014ko apirilaren 22tik 24ra bitarteko egunetarako lanaldia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2014ko apirilaren 9ko idazkia, non eskatzen baita apirilaren 22tik 25era bitarteko lan-asteen goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan hartuta Parlamentuko jarduerarik ez dagoela aurreikusita egun horietako arratsaldeetan, eta Parlamentuaren eta aipatutako Langile Batzordearen arteko 2002 eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2.a) idatz-zatian xedatzen dela

Aste Santuaren ondoko astean goizeko lanaldia ezarriko dela Parlamentuko lanaren aurreikuspenek horretarako aukera ematen badute.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko 2008-2011 eperako Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta arestian aipaturiko Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. 2014ko apirilaren 22tik 24ra bitarteko egunetan goizeko lanaldia ezartzea. Halere, hori ez da eragozpen izanen, goizeko ordutegitik kanpo Legebiltzarreko lana baldin badago, etorri beharreko langileak etor daitezzen, eta haien prestasuna espero da zerbitzu-ematean sor litezkeen beharri-zanen araberako erantzuna emateko.

2. Xedatzea Nafarroako Parlamentura sartzeko ate nagusia irekita egonen dela aipatu egunetako arratsaldeetan.

3. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez onetsitakoa, eta ezartzea 2014ko apirilaren 22tik 24ra bitarteko egunetan 09:00etatik 14:30era bitarte egonen dela zabalik.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko Zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

